

**Jurdana Uriarte Lejarraga Bermeoko Udaleko IDAZKARI NAGUSIAREN****14/2019 TXOSTENA****Gaia:** Udal arkitekto funtzionarioak burutu beharreko funtzioak**Txostenaren oinarria:** Ofizioz**Aurrekariak**

**Lehena.-** Beruala sozietate publikoa 1990eko maiatzaren 31ko Osoko Bilkuran eratu zen, bere helburu soziala delarik:

1. *El desarrollo de las actividades de rehabilitación de naturaleza urbanística que se contienen en el Decreto 278/1983 de 5 de diciembre del Gobierno Vasco y en cualquier otra disposición.*


2. *La gestión y ejecución del planeamiento general a nivel municipal, de acuerdo con la normativa urbanística vigente y en particular con el Real Decreto 1169/78.*

*Se definen como actividades de la sociedad de carácter esencial, las siguientes:*

- a) *La redacción de Planes especiales de Rehabilitación.*
- b) *La redacción de Planes y Proyectos Urbanísticos, incluidos los de Reparación.*
- c) *La redacción de Proyectos de Rehabilitación de todo tipo de construcción.*
- d) *La realización de las obras constitutivas de las actuaciones de rehabilitación, así como de cualquier otra obra que suponga la ejecución de los Planes Especiales de Rehabilitación.*
- e) *La elaboración y seguimiento de estudios socio-urbanísticos.*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019 15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Data: 28/02/2019

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia

*f) La promoción de la programación y preparación de suelo, con objeto de ejecutar las determinaciones del Planeamiento.*

*g) La colaboración en la redacción y gestión de los expedientes de expropiación.*

*h) La elaboración de cualquier otro documento técnico jurídico que precise la sociedad.*

*i) Cualquiera otras actuaciones previstas en el Decreto 278/83 y en cualquier otra disposición, para las que no sea precisa la existencia de concesión administrativa en general, así como las de Planeamiento General del municipio y muy especialmente en fomento de la edificación.*

**Bigarrenena.-** 2001eko martxoaren 19an Tokiko Gobernu Batzarrak arkitektoen lan poltsaren eraketa onartu zuen. Eta bertan arkitekto lanpostuaren ordezkapenak eta aldi baterako kontratazioa betetzeko aukeraketa prozesuan lehenengo postuan J.G.L. dago.

**Hirugarrenena.-** 2001eko maiatzaren 4ko Osoko Bilkurak hirigintza arloan berrantolaketa proiektua onartu zuen. Bertan ondorengo lan banaketa bereizi zen: administrazioa (besteak beste udal arkitektoak parte hartzen zuena), eta kudeaketa, (besteak beste, goi mailako arkitekto berria egongo zela aurreikusten zena). Administrazioak agintea edo herri ahalmena betearazi beharreko guztian izango du eskumena. Kudeaketaren eginkizun eta lanek bere helburuak lortzeko beharrezko diren egintzak burutu, sustatu eta egiaztatzean izango luke oinarria.

**Laugarrenena.-** 2001eko maiatzaren 28ko Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen gaur egun dagoen J.G.L. kudeaketa gaietarako arkitekto modura izendatzea, lanpostu hau jabetzan bete arte. Ostera, adostu zen udal arkitekto lanposturako dagoen lan poltsatik X andrea izendatzea bitartekotasunean A.I. (udal arkitektoa) gaixotasun egoeran dagoen bitartean.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019  
15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



**Bosgarrena.-** 2003ko urtarrilaren 7ko alkatetza dekretuz erabaki zen udal arkitektoaren ordezkari Beruola SAKo J. G.L.k ordezkatzeko lan hori egitea. Izendapen puntuala.

**Seigarrena.-** 2008ko martxoaren 5eko Osoko Bilkurak Bermeoko Udalaren eta Beruola SAREN arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea erabaki zuten. Hitzarmena 2008ko martxoaren 7an onartu zen, zeinak dio:

**LEHENENGOA:** *Kontutan izanda BERUALA Sako arkitektoak dauan eskarmentua herriko urigintza gaietan, alde bietan euren adostasuna agertzen dabe BERUALA SAKo arkitektoak Udalaren Urigintza Teknikoaren zuzendaritza lanak egitea.*

*Lan horreen betebeharrak, azkeneko lanpostuen azterketan definitzen diranak izango dira.*

**BIGARRENA:** *Era berean, udal arkitektoaren oporrak, gaixotasun bajak, herritik kanpo egoteak, eta antzeko egoerak suposatuta daiketen hutsuneetan lanaren premiatasunak halan eskatzen dauanean, alde bietan egoki ikusten dabe, BERUALA SAKo arkitektoak hutsune hori betetea eta udaleko arkitektoaren ordezkari izatea.*

**HIRUGARRENA:** *Lankidetzaren horren truke, BERUALA SAK, aseguruari jagokezan gastu kopuruaren itzulketak jasoko dau Bermeoko Udaletik. Horretarako, hiruhilero, egindako lanen laburpena aurkeztuko deitso Bermeoko Udalari.*

**LAUGARRENA:** *Hitzarmen honen iraupena urtebeterako aurreikusten da. Hala ere, sinatzaileek, epe hori amaitu baino hilabeteko aurrerapenagaz hitzarmena bertan behera ixteko asmorik agertzen ez badabe, urtebeteko epeetan luzatzen joango da.*

**Zazpigarrena.-** Udalean zenbait zalantza sortu dira:



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019  
15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- a) Udal arkitektoa ez den bestelako arkitekto batek arkitekto lanak egin baditzake edo ez.
- b) Beruala Sozietate publikoaren arkitektoak funtzio horiek bete ahal baditu edo ez.
- c) Beruala SAko arkitekto teknikoak udal arkitekto teknikoak bada edo ez.
- d) Funtzionarioa ez den arkitektoak funtzionarioak egin behar dituen funtzioak egitearen ondorioa zein den

**Zortzigarrena.-** 2018ko maiatzaren 21eko Tokiko Gobernu Batzarreko saioan (8. eta 9.puntuetan) idazkariak ohartu zuen obra lizentzia emateko txostenak funtzionarioak egin behar dituztela.

### Argudio juridikoak


#### Lehena.- Funtzionarioa den udal arkitektoak bete beharreko funtzioei buruz

Herri eskumena eta autoritatea egikaritzaren ondoriozko txostenak funtzionarioa den arkitektoak burutu behar ditu.

Toki Erakundeen oinarriak arautzen dituen Legearen 92. artikulua zera dio: «(...).  
*2. Con carácter general, los puestos de trabajo en la Administración local y sus Organismos Autónomos serán desempeñados por personal funcionario. 3. Corresponde exclusivamente a los funcionarios de carrera al servicio de la Administración local el ejercicio de las funciones que impliquen la participación directa o indirecta en el ejercicio de las potestades públicas o en la salvaguardia de los intereses generales. Igualmente son funciones públicas, cuyo cumplimiento queda reservado a funcionarios de carrera, las que impliquen ejercicio de autoridad, y en general, aquellas que en*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren  
egoitza elektronikoan egiaztatu ahal  
dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019  
15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



*desarrollo de la presente Ley, se reserven a los funcionarios para la mejor garantía de la objetividad, imparcialidad e independencia en el ejercicio de la función».*

Artikulu hori interpretatzeko Konstituzio epaitegiaren 2002ko otsailaren 14ko epaia daukagu:

“Cuando en concreto analiza el segundo inciso del artículo 92.2, dice que es cierto que en él no se especifica qué concretas funciones han de ser desempeñadas por el personal sujeto al estatuto funcional y remite su determinación al desarrollo del mismo. Añade que, sin embargo, tal remisión no puede considerarse incondicionada o carente de límites pues en el propio precepto se disponen los criterios o parámetros que han de inspirar, en su desarrollo, la determinación de las funciones que han de ser desempeñadas por funcionarios públicos, cuales son las garantías de objetividad, imparcialidad e independencia en el ejercicio de la función pública. Y afirma que esos criterios, aunque genéricos en su formulación, imponen una efectiva sujeción en la determinación de las funciones que han de ser desempeñadas por personal sujeto al estatuto funcional.

Se completa lo anterior con el razonamiento de que ese artículo 92.2 contiene una determinación que sería, por sí, suficiente de las funciones que han de ser desempeñadas por funcionarios públicos y, "a sensu contrario", de las que no pueden ser encomendadas a personal contratado. Y, con referencia directa ese segundo inciso, se dice que ese personal contratado no podrá ocupar aquellos puestos de trabajo que impliquen el ejercicio de las funciones que se exijan **para mejor garantía de objetividad, imparcialidad e independencia.**”

Auzitegi Gorenaren 2005eko urriaren 19ko epaiak zera dio:

- *“Los patrones interpretativos que para ese segundo inciso del artículo 92.2 de la LRBRL se derivan de la jurisprudencia constitucional que acaba de sintetizarse son, a juicio de esta Sala, estos que continúan:*

- *“1) Aquellos puestos de trabajo cuyas funciones o cometidos exterioricen una*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019  
15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



*actividad de la Administración que tenga una **directa trascendencia para la situación jurídica de otros sujetos de derecho** (ajenos o no a su organización), y en la por ello sean relevantes esas notas de objetividad, imparcialidad e independencia, habrán de ser necesariamente encomendados a personal funcional.*

*- 2) Corresponde a la Administración la carga de demostrar que en las funciones de un determinado puesto resultan indiferentes esas notas que han sido enunciadas.*

*- 3) Consiguientemente, la validez de los puestos de trabajo laborales estará condicionada inexcusablemente a que, en el acto que los haya creado con ese expreso carácter contractual y no estatutario, esté bien visible y justificado que los cometidos y funciones profesionales asignados a los titulares de tales puestos, por sus específicas características, hacen indiferente esas notas de que se viene hablando."*

Zentzu berean urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako errege dekretuak, Langile publikoaren oinarriko estatutuaren legearen testu bateratua onartzen duenak, adierazten du funtzionarioen bitartez egikaritu behar direla zenbait funtzio publiko, besteak beste, **"La participación directa o indirecta en el ejercicio de las potestades públicas o en la salvaguardia de los intereses generales del Estado y de las Administraciones Públicas corresponden exclusivamente a los funcionarios públicos, en los términos que en la ley de desarrollo de cada Administración Pública se establezca."**

Horren inguruan, Gaztela eta Mantxako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2016ko otsailaren 1eko epaia daukagu. Epai honetan funtzio publikoek duten legezko erreserba adierazten da eta funtzio publiko horien artean adierazten da «las de informar previamente las licencias (no sólo las urbanísticas, también las de actividad, funcionamiento o «ambientales») a cargo necesariamente no ya de empleados públicos, sino de funcionarios, artículo 9.2 de la Ley 7/2007, de 12 de abril, Estatuto Básico del Empleado Público».

Doktrinaren gehiengoak dio 5/2015 LEDren 9.2. artikulua egiten duen funtzionarioenganako erreserbak erreferentzia egiten diola herritarren egoera juridikoan



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019 15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidaidea:  
Erregistro nagusia



eragina duten funtzioei, herritarren eskubide eta betebeharrei eragiten dioten funtzioei, non objektibotasuna eta inpartzialtasuna gehien bermatu behar den.

Cholbi Cachák, adibidez, diosku obren lizentziak eta inspezioak funtzionario batek informatu behar dituela eta ezin dela bestelako salbuespenezko kontrataziorik edo atipikorik burutu.

Doktrinaren zati txiki batek, Sánchez Morónek, defendatzen du funtzionarioei gordetako funtzioak soilik direla eskubideak mugatzen dituzten ekintzak, inspezioak, espediente zehatzaileak, tributuen arlokoak eta udaltzaingoarenak.

Ikusi daitekeenez ez da gai baketsua. Baina idazkari honen iritziz funtzionario batek egin behar ditu, autoritatez jarduten delako, herritarren egoera juridikoan zuzeneko eragina daudelako eta objektibitatea, inpartzialtasuna eta independentzia bermatuta gelditu behar delako hurrengo gaitako txosten teknikoak (*numerus apertus* zerrenda da):

- Obra lizentziak
- Jarduera lizentziak
- Ingurumeneko lizentziak
- Zehapen espedienteak
- Inspezioak
- Obren geldiarazteak
- Hirigintzako legalitatea berreskuratzekoak
- Egitezko aginduak

Izan ere, 2001eko maiatzaren 4ko osoko bilkurak hirigintza, ingurugiro eta obren arearen antolaketa proiektua onartu zuenean behin eta berriz adierazi zuen herri agintea udal arkitektoak eta udalaren langileek egingo dutela.

Kontratatu, lan arloko langile batek edo Beruala SAko arkitektoak hurrengo lanak



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019  
15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidadea:  
Erregistro nagusia



egin ditzake (*numerus apertus*):

- Proiektu teknikoak
- Memoria baloratuak
- Ikerketak
- Planen elaborazioa
- Obren zuzendaritza lanak

Beti ere, horiek egikaritzeko legeak ezarritako prozedura jarraituta.

Kasu honetan idazkari honek ez daki 2008ko martxoaren 7an sinatutako hitzarmena indarrean dagoen.

Izan ere, akordioaren lehenengo puntuan adierazten da BERUALA SAko arkitektoak Udalaren Urigintza Teknikoaren azkeneko lanpostuen azterketan definitzen diren zuzendaritza lanak egingo dituela.

Idazkari honek ez daki lanpostuen azterketan 2008.urtean zuzendaritza lan horiek definitu baziren..


Bigarren puntuan adierazi da udal arkitektoaren oporrak, gaixotasun bajak, herritik kanpo egoteak, eta antzeko egoerak suposatu dezakeen hutsuneetan lanaren **premiatasunak** horrela eskatzen duenean, alde biek egoki ikusten dutela, BERUALA SAko arkitektoak hutsune hori betetzea eta udaleko arkitektoaren ordeztaritzea.

Idazkari honek ez du ikusi premiata suna justifikatzen duen txostenik BERUALA SAko arkitektoak hutsunea betetzeko. Dena den, argi dago hitzarmenaren bigarren atala ezin dela aplikatu "... Beruala, SAko arkitektoak hutsune hori betetzea eta udaleko arkitektoaren ordeztaritzea", behintzat funtzionario batek burutu behar duen funtzioetan.

Udal arkitektoaren hutsunea betetzeko legezko era, bitarteko funtzionario kontratatzea, bestelako funtzionarioei lankidetzat eskatzea edo Bizkaiko Foru Aldundiari



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019 15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia





laguntza eskatzea izan daiteke.

Horietaz gain, Udalak kudeaketa akordioak egin ditzake Beruala SArekin funtzionarioei erreserbatuta ez dauden funtzioak Beruala SATik egikaritzeko, baina beti ere, Beruala SAko helburu sozialarekin bat etorritik eta Beruala SAko baliabide pertsonalekin.

Hirugarren erabakian "Lankidetzaren horren truke, BERUALA SAK, aseguruiei jagokezan gastu kopuruaren itzulketa jasoko dau Bermeoko Udaletik. Horretarako, hiruhilero, egindako lanen laburpena aurkeztuko deute Bermeoko Udalarik."

Idazkari honek ez dauka berririk hiruhilero egindako lanen laburpena aurkeztu denik, ezta azken urteetan aseguruiei dagozkion gastu kopuruaren itzulketa jaso duenik.

Laugarren erabakian esaten da: "hitzarmen honen iraupena urtebeterako aurreikusten da. Hala ere, sinatzaileek, epe hori amaitu baino hilabeteko aurrerapenagaz hitzarmena bertan behera ixteko asmorik agertzen ez badabe, urtebeterako epeetan luzatzen joango da".

Idazkari honek ez du ikusi hitzarmena bertan behera uzteko erabakirik.

### **Bigarrena.- Beruala sozietate publikoaren arkitektoak Bermeoko Udalarentzat bete ditzaken funtzioei buruz**

Beruala SAko arkitekto teknikoak funtzionarioei erreserbatuta ez dauden aurretiaz aipatutako funtzioak burutu ditzake, beti ere, horretarako, Beruala SAren helburu soziala kontuan hartuta eta legez onartuta dauden prozedura aztertu, izapidetu eta onartu ondoren.

Izan ere, legezko prozedura horiek jarraitu ostean, Beruala SAko arkitektoak herri agintea eta eskumen publikoa suposatzen ez duten funtzioak burutu ahalko lituzke. Besteak beste, hurrengoak:



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019 15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



- Proiektu teknikoak egitea
- Memoria baloratuak egitea
- Ikerketak egitea
- Planen elaborazioa egitea
- Zuzendaritza lanak burutzea

Beruala SAko helburu sozialarekin bat etorriz, Bermeoko Udala eta Beruala SAren artean, besteak beste, kudeaketa akordioen bitartez zehaztu daitezke Beruala SAko arkitektoak burutu ditzaken funtzio horiek, salbu eta arestian esandakoarekin bat, zuzendaritza lanen kasuan ulertzen baldin bada 2008ko martxoaren 7an sinatutako hitzarmena indarrean dagoela.

Beruala SAren bitartez zenbait funtzio egikaritu nahi badira, kudeaketa akordio berria egitea gomendatzen da argitzeko udal arkitekto funtzionarioaren zein funtzio burutu daitekeen Beruala SAko arkitekto moduan eta zein funtzio ez.

### **Hirugarrena.- Beruala SAko arkitekto teknikoa Bermeoko Udaleko arkitekto moduan sinatzea**

Bermeoko udaleko arkitektoa izateko Bermeoko Udaleko Lanpostuen Zerrendan eta plantilla organikoan egon behar da eta Bermeoko udaleko funtzionario moduan izendapena izan.

Beruala SAko arkitekto teknikoaren lanpostua ez dago Bermeoko Udalaren Lanpostuen zerrendan, ez plantillan; eta J.G. L-k ez dauka legezko izendapenik udal arkitekto moduan jarduteko.

2001eko maiatzaren 4ko osoko bilkurak hirigintza, ingurugiro eta obra sailaren antolaketa proiektua onartu zuen. Izenak berak dioenez proiektu bat izan zen eta bertan egitura organikoaren araudia, lanpostuen zerrenda eta erabaki honekin bat etortzeko



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

#### **Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019  
15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidadea:  
Erregistro nagusia



dagozkion tresnak aldatzeko agindu zen, baina Beruala Sako arkitekto tekniko ez da lanpostuen zerrendan udal arkitekto moduan jaso ezta izendatu.

J.G.L.k aukera luke bitarteko arkitekto funtzionario moduan izendatzeko; izan ere, 2001eko martxoaren 19an onartutako lan poltsan lehenengo postuan aurkitzen da. Beraz, udalak erabaki lezake berorri erabiltzea, lan poltsa hori deialdi publikoaren bitartez eta berdintasuna, meritu eta gaitasun printzipioetan oinarrituta egin dela ulertuta. Baina udal arkitekto moduan izendatzerakoan aukeratu beharko luke Beruala SAko arkitekto tekniko izan edo udal arkitektoa, udal arkitektoaren lanpostua ez delako bestelako lanpostu publiko edo pribaturekin bateragarria.

2001eko maiatzaren 28ko Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki zuen gaur egun dagoen J.G.L. kudeaketa gaietarako arkitekto modura izendatzea, lanpostu hau jabetzan bete arte. Eta ostera, adostu zen arkitekto lanposturako dagoen lan poltsatik X andrea izendatzea bitartekotasunean A.I. (udal arkitektoa) gaixotasun egoeran dagoen bitartean.

Kudeaketa akordioa egitea komeni ikusten bada, Beruala SAko arkitekto tekniko moduan sinatu beharko du, ulertzen baita Beruala SAren bitartez egikarituko direla funtzio horiek, nahiz eta eskumenaren titularitatea Bermeoko Udalarena izan.


Guzti hori gaur egun Beruala SAko arkitekto tekniko mugagabe ez finko izateko arriskupean, eta horrek dakartzan eskubide eta betebeharrak kontuan izan behar diren heinean.

### **Laugarrena.- Funtzionarioa ez den arkitektoak funtzionarioei egokitutako funtzioak betetzearen ondorioei buruz**

Aurreko guztia kontuan hartuta, aztertu behar dugu zer ondorio daukan funtzionarioa ez den arkitektoak informatutako espedienteetan.



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

#### **Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019 15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidatea:  
Erregistro nagusia



Gai honetan jurisprudenzia banatuta dago. Batzuek uste dute, deuseztasun kasu baten aurrean gaudela funtzionarioa den arkitektoak beste zentzu bateko txostena igorriko balu. *Sensu contrario* uste dute txosten berriaren emaitza berdina bada funtzionarioaren txostenaren faltak ez duela suposatzen prozedura guztiz ez jarraitzea eta ez duela interesdunen gainean indefentsiorik ekarriko. Eta horrela adierazi zuen 2011ko urtarrileko Auzitegi Gorenaren epaiak.

Ostera, 2001eko martxoaren 1eko Auzitegi Gorenaren epaiak edo Gaztela eta Leongo Justizia Epaitegi Nagusiak 162/2013 epaiak adierazi zuten kasu horietan deuseztasun kasuetan gaudela.

Kasu bietan ere, ofizioz berrikusteko espedienteak zabaldu beharko lirateke.

Beharrezkoa da gogoraraztea ebazteko eskumena duen organoarentzat funtzionarioek egindako txosten teknikoak eta juridikoak bermeak direla, hirigintzako gaitan legezko ekintzak egiten direla kontrolatzeko. Hau da, ekintzak legez egiten diren edo ez justifikatzeko; eta beraz, ezinbestekoa dela espedienteetan funtzionarioek informatutako txosten horiek izatea.

### Ondorioak

**Lehena.-** Funtzionarioak egin behar ditu herri aginteaz baliatuz burutu beharreko funtzioak, herritarren egoera juridikoan zuzeneko eragina daudelako eta objektibotasuna, inpartzialtasuna eta independentzia bermatuta gelditu behar direlako.

**Bigarrena.-** Beruala SAko arkitekto teknikoak, Beruala SAko helburu sozialarekin bat, funtzionarioei erreserbatuta ez dauden hirigintza arloko zenbait funtzio burutu ditzake; beti ere, horretarako, dagokion legez onartzen diren prozedura aztertu, izapidetu eta onartu ondoren.

**Hirugarrena.-** Gaur egun Beruala SAko arkitektoa ez dago Bermeoko Udaleko udal



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.  
Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

#### Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019  
15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidadea:  
Erregistro nagusia



arkitekto moduan izendatuta eta lanpostua ez dago langileen zerrendan, ezta plaza plantillan.

**Laugarrena.-** Funtzionario ez den langile batek funtzionarioei erresebatutako txostenak informatzearen ondorioa da deuseztagarritasuna edo deusezetasuna.

Beraz, ezinbestekoa da beharrezko aginduak ematea eta neurriak hartzea txosten honetan adierazitakoa betearazteko. Hots, arkitekto teknikoaren kasuan zehazki eta udalean orokorrean funtzionarioak, eta ez beste inork, funtzionarioei egokitutako funtzioak burutzeko; arkitekto teknikoaren kasuan zehazki eta udalean zein erakunde autonomoen eta sozietate publikoaren kasuan orokorrean, etorkizunean izan daitezkeen mugagabe ez finkoen adierazpenak ekiditeko; eta funtzionarioa ez den teknikariak funtzionarioei erresebatutako funtzioak egikarituta emandako ebazpenak aztertu eta, hala dagokionean, ofizioz berrikusteko.

Hori guztia kontuan hartuz, idazkari honek bere kontrako iritzia adierazten du txosten honen kontra egiten diren ekintza guztietan.

Hori da nire ustea, zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpideen kalterik gabe. Hori horrela, Alkatetzak, langileri guztion nagusia denak, egoki deritzona erabakiko du.

*Txostenen hau jakinaraziko zaio Alkateari, Idurre Bideguren Gabantxori eta Berualako presidente eragilea eta hirigintzako zinegotzi delegatua den Irune Ormaetxea Legarretari*

*Oh. Orri oinean sinatzailea eta data*



Idazkaritza Saila. Irakaskintza 14-16 - 48370 Bermeo - Tel.: 94 617 9105 – Faxa: 94 688 5010  
idazkaritza@bermeo.eus - www.bermeo.eus - IFK: P4802100J



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:  
07E30001CF6300M1E8Q0M6X4U6

**Sinadurea eta data**

JURDANA URIARTE LEJARRAGA(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-IDAZKARI  
NAGUSIA - 28/02/2019  
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 28/02/2019  
15:24:25

DOCUMENTO: 20190118627

Fecha: 28/02/2019

Erregistro unidadea:  
Erregistro nagusia

